

LIBURUAREN EGUNA Ormaiztegin

#LiburuarenEguna

2017/04/28

LETREN I.TRUKE AZOKA

Urtero ospatu ohi da mundu osoan LIBURUAREN, HAUR LIBURUAREN zein OLERKIAREN EGUNA. Ormaiztegin, duela 4 urte hasi ginen LIBURUAREN EGUNA ospatzen LIBURU TRUKE AZOKA-rekin.

Azken lau urteetako lanari jarraituz, truke azoka izango dugu, baina oraingoan, ez ditugu liburuak bakarrik trukatu. Olerki, esaera zahar, asmakizun, kantu, ipuin labur, laudorio edota bertsoak jaso eta trukatu nahi ditugu.

Honela, eta azken urteetako azokaren balorazioa egin ondoren, LETREN I.TRUKE AZOKA egitea erabaki da, Ormaiztegi Muxika Egurastokian, apirilaren 28an, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara.

FUNTZIONAMENDUA

Euskaraz idatzitako laudorio, olerki, esaera zahar, bertso edota asmakizunak liburuekin trukatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek eta, onenek, saria izango dute. Mota guztietako liburuak egongo dira trukatzeko eskuragai: komikiak, euskarazko eleberriak, gaztelerazkoak, haur liburuak zein gaztetxoak.

Aurkezten den lan bakoitzeko, bi liburu bereganatu ahalko dituzte parte-hartzaileek. 6 urtetik gorako edozein pertsonak parte har dezake egitasmoan. Aurkeztutako lanak, bakoitzak sortutakoak edota gustuko duen bat izan liteke, beti ere, egilearen izena azalduz. Jasotzen diren lan guztiekin, lehiaketa egingo da, ondoren agertzen diren lau modalitateetan, eta horietako bakoitzean, saritu bakarra izango da:

- a · 30 urtetik gorakoak
- b · 18-29 urte bitartekoak
- c · 12-17 urte bitartekoak
- d · 6-11 urte bitartekoak

SARIAK: lau modalitateetako irabazleek, bina sari komun jasoko dituzte:

- 2017-18 urtean zehar eraikiko den KULTUR ETXE berrian letrei eskainiko zaien muralean lan irabazlea islatzea
- E-BOOK-a (d modalitateko sarituak aukeran izango du E-BOOK edota LIBURU SORTA baten artean aukeratzeko).

Aipamen berezia: aurkeztutako beste lan guztien artean, aukeraketa bat egingo da, eta bitxienak, herriko zebra bideetan margotuko dira.

LANAK AURKEZTEKO EPEA

Apirilaren 28an bertan nahiz aurretik egongo da lanak aurkezteko aukera (bai liburutegian bai kultura.ormaztegui@gmail.com helbidean) eta parte-hartzaile bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio. Zenbaki hori izango da lehiaketan parte-hartzeko zein liburuak trukatzeko bidea emango diona.

ESKULAN TAILERRAK

Arratsalde berean, eta azken urteetako ohiturari jarraituz, eskulan tailerra izango dugu espazio berean. Oraingoan, paperezko lepoko eta bitxiak sortzeko aukera izango da herriko bi artisten eskutik.

Azoka eta hurrengo egunean, berriz, beste tailer berezi bat izango da herrian, Zumalakarregi Museoak antolatuta, loreen albumak sortzeko. Horretarako, liburu zaharrak birziklatuko dira.

6 urtetik gorako pertsona oro egitasmoan parte-hartzera gonbidatzen dugu!